OINARRIAK / BASES

# Konexioak _Prest

FECHA LÍMITE: 26 DE SEPTIEMBRE
EPEMUGA: IRAILAK 26

¡CONTÁCTANOS!
ksigune@ksigune.eus

# Kaixo!

**KSIgune gara.**
**Ongi etorri Konexioak programara,** ikasleak zein irakasle eta ikertzaileak Euskadiko Arteetako, Kulturako eta Sormeneko profesionalekin eta enpresekin lankidetzan aritzeko gunea.

Lankidetza hori babesteko, Konexioak programak 3 deialdi ditu **(_PREST, _LAB eta _HAZI)**, baita ekitaldi bat **(_TOPA)** eta zure proiektua garatzeko etengabeko laguntza zerbitzua ere.

**Gradu edo master amaierako proiektua egin eta praktikara eraman nahi duzu?**

**Orduan, hau zure interesekoa da.**

Eta ideia freskoei esker zure produktuak, zerbitzuak eta prozesuak hobetzeko gogoa duen **enpresa edo profesionala bazara** ere bai.

**Somos KSIgune**
**y te damos la bienvenida a Konexioak,** el programa para que estudiantes y personal docente e investigador colaboren con profesionales y empresas de las Artes, la Cultura y la Creatividad en Euskadi.

Para apoyar esa colaboración, Konexioak cuenta con 3 convocatorias **(_PREST, _LAB y _HAZI)**, un evento **(_TOPA)** y un servicio de apoyo continuado para el desarrollo de tu proyecto.

**¿Quieres realizar tu proyecto de fin de grado o máster y llevarlo a la práctica?**

**Entonces, esto te interesa.**

Y, si **eres una empresa o profesional** con ganas de mejorar tus productos, servicios y procesos gracias a ideas frescas, también.

DEIALDIAK / CONVOCATORIAS

Konexioak _Prest

Konexioak _Lab

Konexioak _Hazi

TOPAKETA / ENCUENTRO

Konexioak _Topa

LAGUNTZA JARRAITUA / ACOMPAÑAMIENTO CONTINUADO

# → Ezagutu Konexioak_Prest

Deialdi honek laguntza ekonomikoa emango dizu, zure proiektua behar bezala garatzeko, baita plataforma bat ere, zure kontaktu sarea zabaltzeko eta emaitzak hedatzeko.

Zure proiektua Gradu edo Master Amaierako Lana (GAL/MAL) izango da, eta modu berritzailean Arteetako, Kulturako eta Sormeneko profesionalei edo enpresei berriztatzen lagunduko die.

# Zuretzako izan liteke...

### 1/ Ikaslea bazara

Unibertsitateko Fakultate batean, Unibertsitateari atxikitako prestakuntza duen zentro batean edo Goi Mailako Arte Irakaskuntzen Eskola batean ari zara ikasten. Zure Gradu edo Master Amaierako Lana Arteekin, Kulturarekin edo Sormenarekin lotura zuzena edo zeharkakoa duen titulazioa izan daiteke.

### 2/ Profesionala edo enpresa bazara

Zure jarduera nagusia Euskadiko sektore hauetako batean edo batzuetan kokatzen da:

- **Kultura:** Arte Eszenikoak, Ikusizko Arteak, Ikus-entzunezkoak eta Multimedia, Liburua eta Prentsa, Musika eta Kultura Ondarea.
- **Sormena:** Arkitektura, Artisautza, Diseinua, Gastronomia Sortzailea, Hizkuntzaren Industriak, Moda, Publizitatea eta Bideojokoak.

# Conoce Konexioak_Prest

Esta convocatoria facilitará apoyo económico para el desarrollo adecuado de tu proyecto, así como una plataforma para ampliar tu red de contactos y difundir los resultados.

Tu proyecto será un Trabajo de Fin de Grado o Máster (TFG/TFM) que de manera novedosa ayude a profesionales o empresas de las Artes, la Cultura y la Creatividad a innovar.

# Es para ti...

### 1/ Si eres estudiante

Estás cursando estudios en una Facultad universitaria, un centro con formación adscrita a la Universidad o una Escuela de Enseñanzas Artísticas Superiores. Tu Trabajo de Fin de Grado o Máster puede ser de una titulación que esté relacionada directa o transversalmente con las Artes, la Cultura o la Creatividad.

### 2/ Si eres profesional o empresa

Tu actividad principal se enmarca en uno o varios de los siguientes sectores en Euskadi:

- **Cultura:** Artes Escénicas, Artes Visuales, Audiovisual y Multimedia, Libro y Prensa, Música, y Patrimonio Cultural.
- **Creatividad:** Arquitectura, Artesanía, Diseño, Gastronomía Creativa, Industrias de la Lengua, Moda, Publicidad y Videojuegos.

## Zer proiektu motarekin har dezakezu parte?

Proiektu guztiek honako ezaugarri hauek izan behar dituzte:

- **Kooperatiboa izatea:** Gutxienez bi erakunde bazkide izatea: Goi Eskola edo Fakultatea (ikaslea eta irakaslea) eta Artearen, Kulturaren edo Sormenaren arloko enpresa edo profesionala. Ikasleak garatzen du proiektua, ikastegiaren eta enpresa edo profesionalaren zuzendaritzaren koordinaziopean.
- **Enpresan aplikazio zuzena izatea:** Prozesuak, produktuak edo zerbitzuak hobetzen laguntzea. Lankidetzaren emaitzak prototipo bat, dibulgaziorako pieza bat edo hainbat (ikus-entzunezkoa, interaktiboa, idatzizko argitalpena...) eta/edo material pedagogikoa izan daitezke.
- **Igarotzen ari den urtean egitea:** Proiektua dagoen unearen arabera –martxan edo diseinuan–, deialdia irekita dago 2024/25 edo 2025/26 ikasturtearen barruan amaitzen diren lanetarako.

## ¿Con qué tipo de proyectos puedes participar?

Todos los proyectos deben tener las siguientes características:

- **Ser cooperativo:** Contar con al menos dos entidades socias: la Escuela Superior o Facultad (estudiante y docente) y la empresa o profesional de las Artes, Cultura o Creatividad. El proyecto lo desarrolla la persona estudiante, bajo la coordinación del centro de estudios, y la dirección de la empresa o profesional.
- **Tener aplicación directa en la empresa:** Ayudar a mejorar sus procesos, productos o servicios. Los resultados de la colaboración podrán ser un prototipo, una o varias piezas para divulgación (audiovisual, interactiva, publicación escrita...) y/o material pedagógico.
- **Realizarse en el año en curso:** Dependiendo del momento en el que se encuentre el proyecto -ya en marcha o aún en diseño- la convocatoria está abierta para los Trabajos que concluyan dentro del curso académico 2024/25 o 2025/26.

## Kontuan izan...

- Enpresa edo profesional berak gehienez 2 proiektutan parte hartu ahal izango du.
- Proiektuko bazkide profesionalaz edo enpresarialaz gain, beste erakunde pribatu, profesional edo elkarte batzuek ere parte har dezakete proiektuan, hainbat modutan, helburuak eta emaitzak lortzen laguntzeko.

## Para tener en cuenta...

- Una misma empresa o profesional podrá participar en un máximo de 2 proyectos.
- Además de la socia profesional o empresarial del proyecto, otras entidades privadas, profesionales o asociaciones pueden también colaborar en el proyecto de diversas maneras para contribuir a los objetivos y resultados buscados.

# → Zer finantzaketa jasoko duzu?

Zure proiektuak **4.000** euro jaso ahal izango ditu gehienez.

Eta, Euskadiko erakunde bazkideez gain, zure proiektuak Nafarroako edo Akitania Berriko kolaboratzaileak baditu, 3.000 euro gehiago ere jaso ahal izango ditu.

**Laguntza honen babesaz, zer finantza daiteke?**

- Proiektua garatzen ari den ikaslearen dedikazioa.
- Proiektuaren tutoretza eta koordinazioa betetzen duten pertsonen dedikazioa.
- Proiektuaren garapenak eragindako gastuak: joan-etorriak, materialak eta berariazko zerbitzu osagarriak, zabalkundekoak barne.

# ¿Qué financiación recibirás?

Tu proyecto podrá recibir un máximo de **4.000 euros**.

Y, si además de las entidades socias de Euskadi, tu proyecto cuenta con colaboradoras de Navarra o Nueva Aquitania, podrá recibir hasta 3.000 euros adicionales.

**¿Qué ayuda a cubrir esta ayuda?**

- La dedicación de la persona estudiante que desarrolla el proyecto.
- La dedicación de las personas que tutorizan y coordinan el proyecto.
- Los gastos derivados del desarrollo del proyecto: desplazamientos, materiales y servicios específicos complementarios, incluyendo los de difusión.

# Kontuan izan...

- Proiektuari emandako finantzaketa KSIguneri eskatutako ehuneko bati edo guztizkoari egokituko zaio, jasotako puntuazioaren arabera.
- Aurreko deialdian KSIgunek finantzatu dituen eta oraingoan jarraipena duten proiektuen kasuan, laguntza ekonomikoa ez da inola ere aurrekontuaren %80 baino handiagoa izango.
- Enpresak edo profesionalak jasoko du finantzaketa, eta haren ardura izango da aurkeztutako aurrekontua banatzea eta proiektua justifikatzeko dokumentazio ekonomikoa aurkeztea.

# Para tener en cuenta...

- La financiación concedida al proyecto corresponderá a un porcentaje o al total solicitado a KSIgune, en función de la puntuación recibida.
- En caso de proyectos financiados por KSIgune en la convocatoria anterior que presentan su continuación, el apoyo económico no superará en ningún caso el 80% del presupuesto.
- La empresa o profesional será quien reciba la financiación y la responsable de distribuir el presupuesto presentado, y de presentar la documentación económica correspondiente para la justificación del proyecto.

## Parte hartu

Sartu gure **Gune+** plataforman eta jarraitu zure hautagaitza aurkezteko urratsak: **https://gunedigital.eus/**

Plataformak hau ahalbidetzen du:

**1/** Izena ematea eta zure eskaera sortzea.

**2/** Komunitatean proiekturako kideak bilatzea.

**3/** Laguntza eskatzea eta txataren bidez orientazioa jasotzea.

**4/** Deialdiaren emaitzei buruzko jakinarazpenak jasotzea.

## Participa

Accede a nuestra plataforma **Gune+** y sigue los pasos para presentar tu candidatura: **https://gunedigital.eus/**

Esta plataforma te permite:

**1/** Registrarte y crear tu solicitud.

**2/** Buscar socias de proyecto en la comunidad.

**3/** Solicitar ayuda y recibir orientación a través del chat.

**4/** Recibir notificaciones sobre el resultado de la convocatoria.

## Data garrantzitsuak / Fechas importantes

### APIRILA 1 ABRIL

**Deialdia irekiko dugu eta zure hautagaitzari hasiera eman ahal izango diozu.**

Abrimos la convocatoria y puedes comenzar tu candidatura.

### MAIATZA _Topa MAYO

**Gure Konexioak_Topa ekitaldian ikusiko dugu elkar; bertan, proiektu ideiak trukatu, arrakasta kasuak ezagutu, zalantzak argitu eta bazkideak aurkitu ahal izango dituzu. Laster emango dugu ekitaldiaren dataren berri!**

Nos veremos en Konexioak_Topa donde podrás intercambiar ideas de proyecto, conocer caso de éxito, resolver dudas e incluso encontrar socias. ¡Muy pronto anunciaremos la fecha del evento!

### IRAILA 26 SEPTIEMBRE

**Deialdia itxiko dugu.**

Cerraremos la convocatoria.

### URRIA ETA AZAROA → OCTUBRE Y NOVIEMBRE

**Deialdiaren emaitzari buruzko jakinarazpenak egingo ditugu eta, hala badagokio, dokumentuak sinatuko ditugu, zuk laguntza jaso ahal izateko.**

Realizaremos las notificaciones sobre el resultado de la convocatoria y, en su caso, procederemos a la firma de los documentos para que puedas recibir la ayuda.

# Nola ebaluatuko dugu zure hautagaitza?

Zure proposamena hainbat diziplinatako pertsonek osatutako batzorde batek ebaluatuko du, proiektuaren kalitatea eta garrantzia bermatzeko.

Kontuan izango dugu nola erantzuten diezun honako atal hauei:

**Ideiaren garrantzia eta kalitatea > 40 puntu gehienez**

Zein da proiektuaren balio erantsia, dakarren berrikuntza eta haren potentziala? Zer eskaintzen du proiektuaren ideiak Fakultate edo Goi Eskolaren eta enpresa edo profesionalaren arteko lankidetzarako?

**Lankidetzaren kalitatea > 20 puntu gehienez**

Lankidetza berria da ala aldez aurretik existitzen da? Zer balio erantsi ematen du lankidetza honek hura gabeko proiektu baten aldean? Zer modutan zarete elkarren osagarri zuen ezagutzak eta esperientzia konbinatuz emaitza berritzaileak sortzeko?

**Proiektuaren garapena eta inplementazioa > 20 puntu gehienez**

Koherenteak al dira proiektuaren helburuak, plangintza, metodologia eta aurrekontua? Ebaluazio adierazlerik eta emaitzak hedatzeko proposamenik dakar?

**Konpromiso soziala > 10 puntu gehienez**

Zer ekintza egingo dira zure komunitateko gizarte erronkei erantzuteko, hala nola Garapen Jasangarrirako 2030 Agendan jasotakoei? Zure proiektuak genero ikuspegia integratzen du?

**Komunikazioa eta hedapena > 10 puntu gehienez**

Nola zabalduko dituzue proiektuaren emaitzak? Zein da euskararen erabilera bere garapenean eta komunikazioan?

# ¿Cómo evaluaremos tu candidatura?

Tu propuesta será evaluada por un comité integrado por personas de distintas disciplinas, para garantizar la calidad y relevancia del proyecto.

Tendremos en cuenta cómo respondes a los siguientes apartados:

**Relevancia y calidad de la idea > hasta 40 puntos**

¿Cuál es el valor añadido del proyecto, su innovación y su potencial? ¿Qué aporta la idea de proyecto para la colaboración entre la Facultad o Escuela Superior y la empresa o profesional?

**Calidad de la colaboración > hasta 20 puntos**

¿Es una colaboración nueva o existente? ¿Cuál es el valor añadido que aporta esta cooperación respecto de un proyecto sin ella? ¿Cómo os complementáis para generar resultados innovadores combinando vuestros conocimientos y experiencia?

**Desarrollo e implementación del proyecto > hasta 20 puntos**

¿Son coherentes los objetivos, la planificación, la metodología y el presupuesto del proyecto? ¿Presenta indicadores de evaluación y una propuesta de difusión de resultados?

**Compromiso social > hasta 10 puntos**

¿Qué acciones se llevarán a cabo para responder a distintos retos sociales en tu comunidad, como los incluidos en la Agenda 2030 de Desarrollo Sostenible? ¿Integra tu proyecto la perspectiva de género?

**Comunicación y difusión > hasta 10 puntos**

¿Cómo difundiréis los resultados del proyecto? ¿Cuál es el uso del euskera que se hará en su desarrollo y su comunicación?

# Proposamen arrakastatsu baten top 10a

**1** Zure proiektu taldeak mistoa izan beharko du: bi erakunde bazkideren lankidetzatik abiatuko da, alde akademikoa eta alde enpresariala.

**2** Proiektu taldeak enpresa bazkide bat badu, pribatua izango da, eta parte-hartze publikoa izanez gero, %50etik beherakoa izango da.

**3** Zure proiektuak aplikazioa izango du enpresarentzat edo profesionalarentzat, balio erantsi bat emateko (haren jarduera nagusitik edo azpikontratazio arrunt batetik harago doa).

**4** Ideia originala izango da, eta ez Konexioak programaren edizio honetan edo aurrekoetan aurkeztutako beste proiektu batzuen erreplika.

**5** Zure proiektua berria izango da, eta berrikuntza ekarriko dio prozesu, zerbitzu edo produktu bati. Horregatik, ekoizpen artistikoa, artistaren egonaldiak edo ondarearen kontserbazioa proiekturako testuingurua izan daitezke, baina ez azken helburua.

**6** Aurrekontu orekatua izango du, eta inplikatutako eragile guztien lana aitortuko du.

**7** Zure proiektuak ez du aurretik finantzazioa jaso Konexioak programaren ondoz ondoko bi ediziotan.

**8** Zure lantaldeak jakinarazpenak aktibatuta izango ditu https://gunedigital.eus/ helbidean, eta mezuei erantzungo die, KSIgunek adierazitako epeetan.

**9** Zure lantaldeak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztuko du, eta baldintza guztiak betetzen dituela ziurtatuko du.

**10** Zure proposamenak ebaluazio irizpideak beteko ditu, eta gutxienez 20 puntu lortuko ditu ideiaren garrantziari eta kalitateari buruzko atalean, eta gutxienez 65 puntu puntuazio osoan.

# El top 10 de una propuesta exitosa

**1** Tu equipo de proyecto deberá ser mixto: partirá de la colaboración de dos entidades socias, la académica y la empresarial.

**2** Si el equipo de proyecto cuenta con una socia empresarial, será privada y en caso de tener participación pública, será inferior al 50%.

**3** Tu proyecto tendrá aplicación en la empresa o profesional para aportarle un valor añadido (va más allá de su actividad principal o de una subcontratación ordinaria).

**4** Será una idea original, y no una réplica de otros proyectos presentados en esta o anteriores ediciones de Konexioak.

**5** Tu proyecto será novedoso y supondrá una innovación en un proceso, servicio o producto. Por eso, la producción artística, residencias de artista o la conservación patrimonial podrán ser contexto para el proyecto, pero no su objetivo final.

**6** Tendrá un presupuesto equilibrado y reconocerá la labor de todos los agentes implicados.

**7** Tu proyecto no habrá sido financiado con anterioridad en dos ediciones consecutivas de Konexioak.

**8** Tu equipo de trabajo tendrá activadas las notificaciones en https://gunedigital.eus/ y responderá a los mensajes en los plazos indicados por KSIgune.

**9** Tu equipo de trabajo aportará toda la documentación solicitada y se asegurará de cumplir todos los requisitos.

**10** Tu propuesta responderá a los criterios de evaluación y obtendrá al menos 20 puntos en el apartado sobre relevancia y calidad de la idea, y al menos 65 puntos en la puntuación total.

## → Zure proiektua hautatzen badugu, zer jakin behar duzu?

Hurrengo urratsak honako hauek dira:

- Plataformaren bidez jakinaraziko dizugu, eta ofizialki iragarriko dugu gure webgunean.
- Proiektuko bazkideek laguntza onartzearen dokumentua sinatuko duzue.
- Enpresak edo profesionalak proiektua kudeatzeko emandako laguntzaren %60 jasoko du.
- Proiektuko bazkideek hezkuntza lankidetzarako hitzarmena sinatuko duzue.
- Proiektuaren jarraipen bilera bat egingo dugu.
- Proiektua amaitzerakoan, hilabete izango duzue proiektuaren emaitzen txostena aurkezteko, https://gunedigital.eus/ plataformaren bidez.
- Azken emaitza baloratuko dugu, eta enpresa edo profesionalari laguntzaren gainerako %40 ordainduko diogu.

## Si seleccionamos tu proyecto, ¿qué debes saber?

Así serán los siguientes pasos:

- Te notificaremos a través de la plataforma y lo anunciaremos oficialmente en nuestra web.
- Las socias del proyecto firmaréis el documento de aceptación de la ayuda.
- La empresa o profesional recibirá el 60% de la ayuda concedida para su gestión.
- Las socias del proyecto firmaréis el convenio de cooperación educativa.
- Haremos una reunión de seguimiento de proyecto.
- Tras la finalización del proyecto, tendréis un mes para presentar el informe con los resultados del proyecto a través de https://gunedigital.eus/
- Valoraremos el resultado final, y abonaremos a la empresa o profesional el 40% restante de la ayuda.

## → Dena irakurri ostean, zalantzarik baduzu...

Zuri laguntzeko gaude.

Idatzi **ksigune@ksigune.eus** helbidera.

## Y si después de haber leído todo, aún tienes dudas...

Estamos aquí para ayudarte.

Escríbenos a **ksigune@ksigune.eus**.

by ksigune

# Konexioak
# _Prest